



EIBARREN EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera, euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa dena, Euskadiko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala, eta herritar guztiek dute euskara ezagutu nahiz erabiltzeko eskubidea. Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola berauen ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak erabaki eta arautzea.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea aipatutako Autonomia Estatutuko 6. artikuluan xedatutakoa garatzera dator, euskararen erabilera arautzen baitu. Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak, bestalde, aipatutako legearen harian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen ditu.

Administrazio bakoitzari dagokio arau eta xedapen orokor horiek bere jardun-eremuan aplikatzea eta aplikazio horretarako beharrezkoak diren arauak eta bitartekoak jartzea. Horixe da, hain zuzen ere, ordenantza honen xedea, hots, indarrean dauden xedapen orokorrak Eibarko Udalaren jardun-eremuan hezurmamitzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren arauak eman eta arauok betearaz daitezzen zaintzea.

Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa izanik, eta gaztelania bezala ofiziala, era berean, euskal herritar guztien ondarea da. Hori horrela, herritar guztien integrazio-tresna izan behar du, eta hala izan dadin saiatuko da Eibarko Udala.

Beste era batera esanda, euskara, Eibarko Udalean eta udalerrian, komunikaziorako egiazko hizkuntza bat izatea eta normal erabiltzea nahi du Udalak, eta, horretarako, behar diren neurriak hartuko ditu. Izan ere, euskara, ofiziala bada ere, normal erabiltzetik urrun dago.

ORDENANZA MUNICIPAL PARA LA REGULACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EIBAR

Con arreglo a lo establecido en el Estatuto de Autonomía del País Vasco, el euskera, lengua propia del País Vasco, es lengua oficial de Euskadi, al igual que el castellano, y la ciudadanía tiene derecho tanto a conocerlo como a usarlo, correspondiendo a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma garantizar y regular el uso de ambas lenguas oficiales, así como disponer y regular las medidas necesarias para asegurar el conocimiento de las mismas.

La Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, desarrolla lo dispuesto en el artículo 6 del citado Estatuto de Autonomía, ya que regula el uso del euskera. Por otra parte, el Decreto 250/1986, de 25 de noviembre, al hilo de la mencionada Ley, regula el uso y normalización del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Corresponde a cada una de las administraciones aplicar, en sus correspondientes ámbitos de actuación, dichas normas y disposiciones generales, así como dictar las normas y disponer los medios necesarios a tales efectos. Ese es, precisamente, el objetivo de esta ordenanza, es decir, dictar y velar por el cumplimiento de las normas necesarias para la aplicación y desarrollo en el ámbito de actuación del Ayuntamiento de Eibar de las disposiciones generales en vigor.

El euskera, lengua propia del País Vasco, y oficial como el castellano, es, asimismo, patrimonio de todo el pueblo vasco. Debe ser, por lo tanto, elemento integrador de toda la ciudadanía, y el Ayuntamiento de Eibar se esforzará en que así sea.

En otras palabras, el Ayuntamiento desea que el euskera sea una lengua de comunicación real y de uso normal en el municipio y en el Ayuntamiento de Eibar, y, para ello, adoptará las medidas oportunas, ya que, a pesar de ser oficial, el euskera está lejos de su uso normalizado.



Indarrean dagoen araudiaren eta, halaber, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legeari buruz Auzitegi Konstituzionalak ekainaren 26an emandako 82/1986 epaiaren arabera, botere publikoei dagokie herritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea bermatzea eta hizkuntza horien ezagutza eta erabilera babestea eta sustatzea. Eibarko Udalak bere gain hartzen du erantzukizun hori. Hortaz, ordenantza honek arau-esparrua definitzen du Udalaren barne-funtzionamenduan nahiz Udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala nola udalerriko bizitza sozialean, euskararen erabilera normalizatzeko Udalak hartuko dituen neurrientzat.

I. KAPITULUA

1. artikulua.- Hizkuntza ofiziala

Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan, gaztelania bezala.

2. artikulua.- Hizkuntza propioa

Euskara da Eibarko hizkuntza propioa, baita haren erakunde publiko guztietakoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren parte den aldetik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 6.1 artikulua xedatzen duen bezala. Ordenantza honen xedea da, indarrean dauden xedapen orokorrak Eibarko Udalaren jardun-eremuan hezurmamitzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren arauak eman eta arauok betearaz daitezen zaintzea.

3. artikulua.- Hizkuntza-eskubideak

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea oinarritzat hartuta, hauek dira hizkuntzaren alorrean herritarrek dituzten eskubideak eta botere publikoek dituzten betebeharrak:

A tenor de la normativa vigente y, de igual manera, con arreglo a la sentencia 82/1986, de 26 de junio, dictada por el Tribunal Constitucional respecto a la Ley Básica de uso y normalización del euskera, corresponde a los poderes públicos garantizar el derecho que tiene la ciudadanía a hacer uso de las lenguas oficiales, así como la protección y promoción del conocimiento y uso de dichas lenguas. El Ayuntamiento de Eibar se hace cargo de dicha responsabilidad. Por lo tanto, en la presente ordenanza se define el ámbito normativo para la actuación que desarrollará el Ayuntamiento en aras a normalizar el uso del euskera en el funcionamiento interno de la administración municipal y en las relaciones de ésta con la ciudadanía, así como en la vida social del municipio.

I. CAPÍTULO

Artículo 1º Lengua oficial

El euskera, lengua propia del País Vasco, es, conforme a la Ley Básica 10/1982 de 24 de noviembre, como el castellano, lengua oficial en toda la Comunidad Autónoma Vasca.

Artículo 2º Lengua propia

El euskera es lengua propia del municipio de Eibar y de todas sus entidades públicas, como parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, según el artículo 6.1. del Estatuto de Autonomía del País Vasco. El objetivo de esta ordenanza es dictar y velar por el cumplimiento de las normas necesarias para la aplicación y desarrollo en el ámbito de actuación del Ayuntamiento de Eibar de las disposiciones generales en vigor.

Artículo 3º Derechos lingüísticos

Conforme a la Ley Básica 10/1982 de 24 de noviembre de normalización del uso del euskera, estos son los derechos de la ciudadanía y deberes de los poderes públicos en materia lingüística:



Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

- a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
- b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
- c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.
- e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

Botere publikoek eskubide horien erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrek eta benetakoak izan daitezten. Ondorioz, Eibarko Udalari dagokio eskubide horiek betetzen direla bermatzea.

4. artikulua.- Aplikazio-esparrua

Ordenantza honek arautzen du euskarak duen erabilera, bai udal administrazioaren eta haren erakunde autonomoen barne- eta kanpo-funtzionamenduan, bai eta udal esparruan ere.

II. KAPITULUA

Euskararen erabilera Udalaren barne-funtzionamenduan

5. artikulua.- Euskararen erabilera

Toda la ciudadanía del País Vasco tiene derecho a conocer y usar las lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito.

Se reconocen a la ciudadanía del País Vasco los siguientes derechos lingüísticos fundamentales:

- a) Derecho a relacionarse en euskera o en castellano oralmente y/o por escrito con la Administración y con cualquier organismo o entidad radicado en la Comunidad Autónoma.
- b) Derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas oficiales.
- c) Derecho a recibir en euskera publicaciones periódicas, programaciones de radio y televisión y de otros medios de comunicación.
- d) Derecho a desarrollar actividades profesionales, laborales, políticas y sindicales en euskera.
- e) Derecho a expresarse en euskera en cualquier reunión.

Los poderes públicos garantizarán el ejercicio de estos derechos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, a fin de que sean efectivos y reales. Por tanto, corresponde a este Ayuntamiento garantizar el ejercicio de estos derechos.

Artículo 4º Ámbito de aplicación

Esta ordenanza regula el uso del euskera en el funcionamiento interno y externo de la administración municipal y de sus Organismos Autónomos, así como en el ámbito municipal.

II. CAPÍTULO

Uso del euskera en el funcionamiento interno del Ayuntamiento

Artículo 5º Uso del euskera



Aurreko artikuluetan xedatutakoa betetzeko, euskara, gaztelaniarekin batera, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izango da, eta Eibarko Udalean eta haren erakunde autonomoetan lan-hizkuntza izateko neurriak hartuko dira.

6. artikulua.- Ahozko harremanak

Beren lan-hizkuntzat euskara erabiltzea adostu duten udaleko sailek, lan-batzordeek eta batzorde aholkulariek euskara izango dute ohiko hizkuntza lan alorreko bileretan eta elkarrizketetan.

Gainerako sailetan eta batzordeetan, euskararen presentzia bermatuko da eta neurriak hartzen hasiko da euskara lan-hizkuntza izan dadin lan alorreko bileretan eta elkarrizketetan.

Udalbatzarrean, aldibereko itzulpena izango dute udal ordezkariak, hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izateko.

7. artikulua.- Idatzizko komunikazioak

- **Idazkiak, dokumentuak eta barruko materiala**

Euskara planaren barruan dauden udal langileei bidalitako komunikazio orokorrak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz izango dira.

Udal ordezkariari bidalitako komunikazio orokorrak ele bietan izango dira.

- **Batzordeen deialdiak eta aktak**

Euskara lan-hizkuntzat euskara erabiltzea adostu duten batzorde aholkulariek eta lan-batzordeek euskaraz idatziko dituzte beren bilkuretako aktak eta deialdiak. Ordezkaritza politikoen itzulpena eskatu ahal izango dute.

Con el fin de cumplir lo dispuesto en los artículos anteriores, el euskera, junto con el castellano, será lengua en la que se dé servicio a los ciudadanos, y se adoptarán medidas para que sea lengua de trabajo en el Ayuntamiento de Eibar y sus Organismos Autónomos.

Artículo 6º Comunicaciones orales

Los departamentos, comisiones de trabajo y comisiones asesoras que hayan adoptado el acuerdo de usar el euskera como lengua de trabajo tendrán el euskera como lengua de uso habitual en las reuniones y conversaciones de ámbito laboral.

En el resto de departamentos y comisiones se garantizará la presencia del euskera y se iniciarán actuaciones para que el euskera sea lengua de trabajo en reuniones y conversaciones del ámbito laboral.

A los/las representantes políticos/as se les facilitará el servicio de traducción simultánea, para poder utilizar cualquiera de las lenguas oficiales en el pleno municipal.

Artículo 7º Comunicaciones escritas

- **Escritos, documentos y materiales internos**

Todas las comunicaciones generales dirigidas a la plantilla municipal incluida en el plan de euskera deberán ser en euskera o en euskera y castellano.

Todas las comunicaciones generales dirigidas a los políticos deberán ser en bilingüe.

- **Convocatorias y actas de las comisiones**

Las comisiones asesoras y comisiones de trabajo que hayan adoptado el acuerdo de usar el euskera como lengua de trabajo redactarán las actas y convocatorias de las comisiones de trabajo y comisiones consultoras en euskera. Los/las representantes políticos/as podrán solicitar traducción.



Gainerako batzordeetan, euskararen presentzia bermatuko da, eta euskara zein gaztelania erabiliko dira, sailaren eta hartzaileen arabera.

Udalbatzarraren eta tokiko gobernu-batzordearen deialdiak eta aktak ele bietan izango dira. Akordioak zein ebazpenak ere ele bietan idatziko dira.

8. artikulua.- Udal langileak eta udal atalak euskalduntzea

- Langileen euskalduntzea eta prestakuntza

Udalak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu udal langileek bi hizkuntza ofizialetan beharrezko duten hizkuntza-gaitasuna lor dezaten eta, hartara, 3. kapituluaren adierazitako hizkuntza eskubideak bete daitezten. Horretarako, Udalak, euskalduntze ikastaroetarako matrikulazio-aukerak eta trebakuntza-ikastaroak eskainiko ditu.

Langileen prestakuntza-ikastaroak euskaraz izango dira, ahal den guztietan. Euskaraz egiterik ez dagoenean, euskararen erabilera bermatuko da.

- Hizkuntza-eskakizunak eta derrigorrezko datak

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzekeo prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuari jarraituz, Eibarko Udalak eta haren erakunde autonomoek hizkuntza-eskakizuna ezarri zioten lanpostu bakoitzari eta, hala zegoenean, derrigortasun-data ere bai.

86/1997ko Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, lanposturen batean hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez bada, euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da, bai lanpostuak betetzerakoan, bai langileak hartzerakoan.

Aipatutako dekretuak 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, derrigortasun-datatik aurrera hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta behar du. Kasu horretan betebehar hori derrigorrezkoa da dagokion

En el resto de comisiones se garantizará la presencia del euskera y se hará uso tanto del euskera como del castellano según el departamento y los destinatarios.

Las actas y convocatorias de los plenos y juntas de gobierno local se redactarán en bilingüe. Los acuerdos y resoluciones también se redactarán en bilingüe.

Artículo 8º Euskaldunización del personal y las secciones municipales

- Euskaldunización y formación del personal

El Ayuntamiento adoptará las medidas necesarias para que el personal municipal logre la competencia lingüística necesaria en las dos lenguas oficiales y de esa manera se puedan garantizar los derechos lingüísticos señalados en el capítulo 3. Para todo ello, el Ayuntamiento ofertará la matriculación en cursos de euskaldunización y cursos de capacitación.

La formación del personal será en euskera siempre y cuando sea posible. En los casos en los que no lo sea, se garantizará la presencia del uso del euskera.

- Perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad

En cumplimiento del Decreto 86/1997 por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euzkadi, el Ayuntamiento de Eibar y sus Organismos Autónomos asignaron el perfil lingüístico correspondiente a cada puesto de trabajo, así como, en su caso, la fecha de preceptividad.

Según lo dispuesto en el artículo 7º del Decreto 86/1997, el perfil lingüístico, en tanto no fuera preceptivo, servirá para determinar la valoración que como mérito habrá de otorgarse al conocimiento del euskera, tanto en la provisión de puestos de trabajo como en la selección externa.

Según lo dispuesto en el artículo 8º de dicho decreto, la fecha de preceptividad es aquella a partir de la cual el cumplimiento del perfil lingüístico se constituye como



lanpostuan sartzeko eta lanpostu hori bete ahal izateko.

- **Udal langileak kontratatzea**

Eibarko Udalean eta haren erakunde autonomoetan karrerako funtzionario lanpostu batez nahiz lan-araubideko lanpostu finko batez jabetu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuak behin-behinean betetzen diren kasuetan (lan-poltsa, zerbitzu-eginkizuna...), hautagai gisa onartu ahal izango dira aurreko mailako hizkuntza-eskakizuna dutenak (2. hizkuntza-eskakizuna 3.a derrigorrezkoa duten lanpostuetan eta 3.a 4.a derrigorrezkoa dutenetan).

III. KAPITULUA

Euskararen erabilera Udalaren kanpo-funtzionamenduan

9. artikulua.- Harremanak herritarrekin.

- **Lehen hitza eta harrera**

Euskara izango da lehen hitza telefonoan eta aurrez aurreko harreran .

- **Inprimakiak eta komunikazio idatziak**

Udalak eta haren menpeko edozein erakundek herritarrei bidaltzen dizkieten komunikazio, ziurtagiri, gutun eta jakinarazpen idatzi guztiak hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira.

- **Bilerak eta jarduera publikoa**

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea oinarri hartuta, udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Hori horrela, herritarrek bileretan euskaraz egiteko eskubidea dutela adieraziko dute udal langileek eta zinegotziek.

Euskaraz dakiten Eibarko Udaleko ordezkari politikoei euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dute ekitaldi publikoetan, Udalaren izenean ari direnean. Ekintza

exigencia obligatoria para el acceso y desempeño del correspondiente puesto de trabajo.

- **Contratación de personal municipal**

Para proceder a la provisión de un puesto de trabajo de funcionario de carrera o a un puesto de personal laboral fijo en el Ayuntamiento de Eibar y Organismos Autónomos, será requisito indispensable acreditar el perfil lingüístico que corresponda al mismo.

En los puestos de trabajo con perfil lingüístico 3 o 4 preceptivo provistos de manera temporal (bolsa de trabajo, comisión de servicios...) se podrán admitir como candidatos a las personas que acrediten un perfil menos (2 en el caso en el que preceptivo sea 3, y 3 en el que preceptivo sea 4).

III. CAPÍTULO

Uso del euskera en el funcionamiento externo del Ayuntamiento

Artículo 9º Relaciones con la ciudadanía

- **Atención y recepción al público**

El euskera será lengua de inicio en comunicaciones telefónicas y atención al público.

- **Impresos y comunicaciones escritas**

Toda comunicación, certificado, carta y notificación escrita enviada por el Ayuntamiento o sus órganos dependientes a la ciudadanía deberá estar escrita en ambos idiomas oficiales.

- **Reuniones y actividad pública**

En base a la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, la ciudadanía tiene derecho a expresarse en euskera en cualquier reunión, por lo que el personal municipal y representantes políticos expresarán que puede ejercerse dicho derecho.

Los y las representantes políticos/as que sepan euskera y participen en actos públicos en nombre el Ayuntamiento, se expresarán en euskera y castellano.



eta entzule motagatik, gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan eta bileretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenean eta laburpenetan.

Herritar multzo euskaldunarentzako jarduerak euskaraz izango dira.

- **Jakinarazpenak**

Ediktuak, ordenantzak, erregelamenduak eta beste edozein motatako erabakiak ele bietan argitaratuko dira.

- **Abisuak, argitalpenak eta harremanak hedabideekin**

Herritarrentzako iragarkiak, diptikoak eta argitalpenak ele bietan argitaratuko dira.

Herritar multzo euskaldunarentzako argitalpenak euskaraz izango dira.

Prentsa-oharrak ele bietan egingo dira.

Udalaren webgunea ele bietan egongo da.

Aldizkari, gida eta berripaperak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Gaiaren eta hartzailearen arabera, beste aukera batzuk aztertuko dira, betiere hizkuntza bien erabileraren arteko oreka mantenduta. Hala dagokionean, beste hizkuntza batzuk erabili ahal izango dira.

- **Erregistroa**

Udalan sarrera eta irteera ematen zaien dokumentuak idatzita dauden hizkuntza berean inskribatuko dira Udal Erregistroan.

- **Udal eraikin, instalazio eta bulego guztien errotulazioa**

Udalaren eta haren erakunde autonomoen eraikin, instalazio eta bulego guztietako errotulazioa hizkuntza ofizial bietan egongo da.

En los actos o reuniones en las que el castellano sea la lengua mayoritaria por el tipo de actividad u oyentes, se garantizará el uso del euskera en la introducción, presentación y resúmenes.

Los actos dirigidos al colectivo vasco parlante se harán en euskera.

- **Notificaciones**

Los edictos, ordenanzas, reglamentos y cualquier tipo de resolución se publicarán en bilingüe.

- **Avisos, publicaciones y relaciones con los medios de comunicación**

Los anuncios, dípticos y publicaciones para la ciudadanía se publicarán en bilingüe.

Las publicaciones dirigidas al colectivo vasco parlante serán en euskera.

Las comunicaciones de prensa se realizarán en bilingüe.

La página web del Ayuntamiento estará en bilingüe.

Las revistas, guías, hojas informativas se realizarán en euskera y castellano. Según el tema y los receptores, se analizarán otras opciones, manteniendo el equilibrio entre el uso de ambas lenguas. Cuando así proceda, se podrán utilizar otros idiomas.

- **Registro**

Los documentos a los que se dé entrada o salida en el Ayuntamiento serán inscritos en el Registro Municipal en la lengua en la que hayan sido presentados.

- **Rotulación de todos los edificios, instalaciones y dependencias municipales**

La rotulación de todos los edificios, instalaciones y dependencias del Ayuntamiento y de los Organismos Autónomos del mismo se realizará en las dos lenguas oficiales.



10. artikulua.- Harremanak erakunde pribatuekin eta zerbitzuen kontratazioa (DEUSEZ ADIERAZIA – EAEko Auzitegi Nagusiaren 253/2016 zenb. epaia)

Eibarko Udalak eta haren erakunde autonomoek dokumentazio orokorra ele bietan bidaliko diete erakunde pribatuei.

Euskara lan-hizkuntzatzat aukeratzea adostu duten udaleko sailek, lan-batzordeek eta batzorde aholkulariek dokumentazioa euskaraz bidaliko diete erakunde pribatuei, haiekin hala egitea adostuz gero.

Gainerako sail eta batzordeetan euskararen presentzia bermatuko da, eta euskara zein gaztelania erabiliko dituzte, sailaren eta hartzaileen arabera.

Udal eskumeneko zerbitzuak beste pertsona edo erakunde batek emango balitu eta zerbitzuotan herritarrekin edo erabiltzaileekin zuzeneko hartu-emanak eduki, zerbitzua betetzeko arduraren enpresa horrek administrazioari berari eskatzen zaizkion hizkuntza-beharkizun berberak bete beharko ditu, eta hala jasoko da beren-beregi administrazio-klausula berezien pleguan.

11. artikulua.- Komunikazioak erakunde publikoekin.

Euskara lan-hizkuntzatzat aukeratzea adostu duten udaleko sailek, lan-batzordeek eta batzorde aholkulariek dokumentazioa euskaraz bidaliko diete Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei eta erakunde ofizialei, haiekin hala egitea adostuz gero.

Gainerako sail eta batzordeetan euskararen presentzia bermatuko da, eta euskara zein gaztelania erabiliko dituzte, sailaren eta hartzaileen arabera.

IV. KAPITULUA

Euskararen erabilera udalerrian

12. artikulua.- Xedapen orokorrak

Artículo 10º Comunicaciones con entidades privadas y contratación de servicios (DECLARADO NULO - Sentencia nº 253/2016 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco)

El Ayuntamiento de Eibar y sus organismos dependientes enviarán a las entidades privadas la documentación de uso general en bilingüe.

Los departamentos, comisiones de trabajo y comisiones consultoras que hayan adoptado el acuerdo de usar el euskera como lengua de trabajo enviarán en euskera la documentación a las entidades privadas, conforme se acuerde con las mismas.

En el resto de departamentos y comisiones se garantizará la presencia del euskera y se hará uso tanto del euskera como del castellano, según el departamento y los destinatarios.

Cuando una tercera persona/entidad ofrezca servicios de competencia municipal y en dichos servicios tenga relación directa con los y las usuarias, la empresa encargada de efectuar el servicio deberá cumplir los mismos requisitos lingüísticos que se le exigen a la administración y así se hará constar expresamente en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Artículo 11º Comunicaciones con organismos públicos

Los departamentos, comisiones de trabajo y comisiones consultoras que hayan adoptado el acuerdo de usar el euskera como lengua de trabajo enviarán en euskera la documentación a las administraciones públicas y organismos oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, conforme se acuerde con las mismas

En el resto de departamentos y comisiones se garantizará la presencia del euskera, y se hará uso tanto del euskera como del castellano, según el departamento y los destinatarios.

IV. CAPÍTULO

Uso del euskera en el municipio

Artículo 12º Disposiciones generales



Euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. artikulua dioenaren arabera, Eibarko Udalak, euskal botere publikoa den aldetik, bere eskumenekoak diren neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko; eta, hartara, herritarrek euskaraz garatu ahal izango dituzte salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijio edota beste edozein motatako jarduerak.

13. artikulua.- Toponimoak eta bide-seinaleak

- Toponimoen edo leku izenen erabilera

Eibarko Udalak finkatuko du udalerriko kale, bide, auzo, mendi, ibai, erreka eta oro har toponimoen edo leku izenen izendegi ofizial osoa, Euskaltzaindiaren oharra eta aholkuak kontuan hartuz eta, betiere, haien jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzari berezkoa zaion grafia akademikoa erabiliz.

- Seinaleak

Seinale guztiak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira.

14. artikulua.- Kultura, kirol eta aisialdi jarduerak (DEUSEZ ADIERAZIA – EAEko Auzitegi Nagusiaren 253/2016 zenb. epaia)

Eibarko Udalaren diru-laguntza jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, ordenantza honetako 9. artikuluan jasotako hizkuntza-betebeharrak bete beharko dituzte dagokien alorrean.

Diru-laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek artikulua honetan xedatutakoa jakinaraziko diete onuradunei, eta bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

Entitateek Euskara Zerbitzura jo ahalko dute testuak itzultzeko eta zuzentzeko, betiere behar diren baldintzak betez gero.

Conforme al artículo 26 de la Ley Básica 10/1982 de 24 de noviembre de normalización del uso del euskera, el Ayuntamiento de Eibar, como poder público vasco que es, tomará dentro de sus competencias las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes para fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Artículo 13º Topónimos y señales de tráfico

- Uso de los topónimos

El Ayuntamiento de Eibar fijará toda la nomenclatura oficial de calles, caminos, barrios, montes, ríos y topónimos en general, siguiendo las indicaciones de Euskaltzaindia, respetando siempre su origen y utilizando la grafía académica propia de cada lengua.

- Señales

Todas las señales serán redactadas en las dos lenguas oficiales.

Artículo 14º Actividades culturales, deportivas y de ocio (DECLARADO NULO - Sentencia nº 253/2016 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco)

Las asociaciones y entidades, personas físicas o entidades jurídicas, deberán cumplir los mismos requisitos lingüísticos recogidos en el artículo 9º de esta ordenanza que les correspondan.

Los órganos competentes de gestionar las subvenciones comunicarán los aspectos recogidos en este capítulo y adoptarán las medidas necesarias para asegurar que se cumplan.

Las entidades podrán acudir al Servicio de Euskera para solicitar la traducción y corrección de los textos, siempre que se cumplan los requisitos necesarios.



15. artikulua.- Espazio publikoen, instalazioen eta materialen erabilera (DEUSEZ ADIERAZIA – EAEko Auzitegi Nagusiaren 253/2016 zenb. epaia)

Espazio publikoak, udal instalazioak eta materialak erabiltzeko eskaera egiten duten entitateek 9. eta 14. artikuluetan aipatutako baldintzak bete beharko dituzte dagokien alorrean. Udalak pilotalekua, hesiak, oholtzak, futbol-zelaia eta bestelako udal instalazioak eta materialak erabiltzeko baimena ematerakoan, baldintza horien berri emango die interesatuei, eta haiek bete egin beharko dituzte, fidantza itzuliko bazaie.

16. artikulua.- Establezimenduetako errotuluak

Eibarko herriaren hiri antolamendurako Plan Nagusian jasotako hirigintza arauen 9.13.12 artikuluan jasotakoaren arabera, saltokien eta antzekoen iragarki guztiak, eta orobat errotuluak eta fatxadan ipini beharreko idazkun iraunkor oro, gaztelaniaz eta euskaraz ipini beharko dira, eta euskarazko testua udalak baliodundu behar du.

17. artikulua.- Euskara hezkuntza alorrean

Eibarko Udalak jarduera osagarriak bultzatuko ditu eskola-mundua eta eskola-umeen arteko giroa euskalduntzeko. Hori guztia ikastetxeekin elkarlanean egingo da.

Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) egindako ikastaroak diruz lagunduko dira, baldin eta udal aurrekontuetan horretarako diru-zuzkidura bada. Diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratuko dira, 'Tramiteak eta zerbitzuak' atalean.

V. KAPITULUA

Eibarko Udalak lagunduko du euskara ikastera edo ezagutza hobetzera bultzatzen duten kanpainetan.

Artículo 15º Uso de espacios públicos, instalaciones y materiales (DECLARADO NULO - Sentencia nº 253/2016 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco)

Las entidades que soliciten la utilización de espacios públicos, instalaciones municipales y material deberán cumplir los requisitos indicados en los artículos 9º y 14º que les correspondan. El Ayuntamiento informará a las personas interesadas en utilizar el frontón, vallas, tableros, campo de fútbol y demás instalaciones sobre dichas condiciones, y uno de los requisitos exigidos para devolver la fianza será el cumplimiento de los requisitos indicados.

Artículo 16º Rótulos de los establecimientos

Según el artículo 9.13.12 de la normativa urbanística recogida en el Plan General de ordenación urbana de Eibar, [todos los anuncios de establecimientos, así como los letreros y toda rotulación permanente que se sitúe en fachada, se habrá de realizar en castellano y en euskera y el texto en euskera deberá ser validado por el Ayuntamiento.](#)

Artículo 17º Euskera en el ámbito de la educación

El Ayuntamiento de Eibar promocionará actividades complementarias para aumentar el uso del euskera en el mundo escolar y entre los escolares en colaboración con los colegios.

Los cursos realizados en Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) serán objeto de ayuda siempre y cuando haya una dotación en los presupuestos municipales. Las condiciones para optar a las ayudas serán publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento, en el apartado de 'Trámites y servicios'.

V. CAPÍTULO

El Ayuntamiento de Eibar colaborará en las campañas para aprender euskera y mejorar su conocimiento.



Udalak laguntza ekonomikoak emango dizkie euskara ikasi nahi duten herritarrei, zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzak xedatutakoaren arabera.

VI. XEDAPEN GEHIGARRIAK

18. artikulua.- Egitura, funtzionamendua eta segimendua

Eibarko Udalak indarrean dauden normalizazio-planen bidez aplikatuko du ordenantza honetan xedatutakoa.

Ordenantza hau modurik eraginkorrenean ezartzeko eta honen jarraipenerako beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta hartzeko, Eibarko Udalak ondoko egitura izango du: Euskararen Aholku Batzordea eta Udalak egokiena deritzon egitura teknikoa.

Euskararen Aholku Batzordea: udalerrian hizkuntza-normalizazioan diharduten talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetakoa da. Urtean, gutxienez, bitan elkartuko da, eta haren egiteko nagusia ordenantza honen jarraipena egitea eta ekintza zuzentzaileak adostea izango da.

Euskara Saila: ordenantzaren garapenaren segimendu-, kontrol- eta ebaluazio-lanak egingo ditu. Horretarako, jarraipen-lana egiteko sistema bat diseinatuko du.

[Euskara Sailak, prozesuaren edozein fasetan, ordenantza ezartzerakoan egon daitezkeen atzerapenak edo zailtasunak aztertuko ditu, eta behar diren neurri zuzentzaileak proposatuko dizkio Euskararen Aholku Batzordeari.](#)

Eibarko Udalak ematen dituen ebazpenek eta udal organoek edo atalek abian ipintzen dituzten programek edo egitasmoek araudi honetan jasotakoak errespetatu beharko dituzte.

Euskara arloko kargudun politikoa arduratuko da Udaleko sail eta batzorde guztiei araudi hau indarrean

El Ayuntamiento ofrecerá ayudas económicas para aprender euskera conforme a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

VI. DISPOSICIONES ADICIONALES

Artículo 18º Organización, funcionamiento y seguimiento

El Ayuntamiento de Eibar aplicará lo dispuesto en esta ordenanza a través de los planes de normalización vigentes.

Con el objeto de implantar eficazmente esta ordenanza y proponer, analizar y adoptar las medidas necesarias para su seguimiento, el Ayuntamiento de Eibar contará con la siguiente organización: el Órgano Asesor del Euskera y la estructura técnica que el Ayuntamiento considere más apropiada.

Órgano Asesor del Euskera: es el órgano de relación entre las organizaciones, grupos y asociaciones privadas y públicas que desarrollan una labor por la normalización lingüística. La comisión se reunirá dos veces al año, como mínimo, y su labor fundamental estará dirigida a realizar el seguimiento de esta ordenanza y acordar acciones correctoras.

Departamento de Euskera: realizará las labores de seguimiento, control y evaluación de la ordenanza, diseñando para ello un sistema de seguimiento.

El Departamento de Euskera analizará las dificultades y retrasos en la implantación de la ordenanza en cualquier fase del proceso, y propondrá las medidas correctoras necesarias al Órgano Asesor del Euskera.

Cualquier resolución dictada por el Ayuntamiento de Eibar o cualquier programa o proyecto emprendido por los órganos o secciones municipales deberá respetar los preceptos contenidos en esta normativa.

La/el responsable política/o de euskera será la/el encargada/o de dar a conocer a todos los



jarri dela jakinarazteaz, bai eta araudiaren xedapenei buruzko argibideak emateaz ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira araudi honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak eta honen aginduak urratzen dituzten xedapen eta erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epean, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikulua arabera.

departamentos y comisiones la entrada en vigor de esta normativa, así como de informales sobre las disposiciones de la misma.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan automáticamente derogados todas las disposiciones o acuerdos del mismo nivel o inferior a esta normativa y todas aquellas que contravengan sus preceptos.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, tal y como refiere el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.